

Nafarroako Kanpoko Ebaluazio Estandarizatuak
EBALUAZIO DIAGNOSTIKO ZENTSALA
Lehen Hezkuntzako 4.a
2019-2020 ikasturtea

Jarduketan protokoloa

AURKIBIDEA

A.	2019/2020 ikasturteko berritasunak	3
B.	Galde-sorta sozioekonomiko eta kulturala online aplikatzeko protokoloa	3
C.	Probak entregatzea eta zaintzea	4
D.	Ebaluazio probak nork egingen dituzten	5
E.	Proben egokitzapena.....	5
F.	Probak betetzea	6
G.	Aplikazio fasea prestatzea	6
H.	Aplikazioa	6
I.	Proba egunean etortzen ez diren ikasleak	8
J.	Ingelesezko hizkuntza gaitasuneko probaren berriazko jarraibideak	8
K.	Probak aplikatzeko egutegia	9
L.	Proben zuzenketa	9
M.	Datuak sartzea	10
N.	Ikaslearen eta ikastetxearen txostenak eskuratzea	11
O.	Ikasleek egindako probak gordetzea	13
P.	Eskerra	14
1.	ERANSKINA - EGOKITZAPENEN ERREGISTROA	15
2.	ERANSKINA – JARDUKETEN EGUTEGIA.....	16

Dokumentu honetan azaltzen dira Nafarroako ikastetxe guztiek kontuan hartu beharreko jarraibideak, ebaluazio probak ikastetxe guztietan modu kontrolatuan eta era berean aplikatzen, zuzentzen eta erregistratzen direla bermatzeko.

Ebaluazio honen aplikatze, zuzentze, grabatze eta informatze lanetan aritu beharreko zuzendaritzako kideek eta irakasleek behar bezain garaiz jakin eta gauzatu beharko dituzte jarraibide hauek.

A. 2019/2020 ikasturteko berrietasunak

- Gida bat prestatu da, eta bertan deskribatzen da nola egin EDUCAn ebaluazioarekin zerikusia duten zereginak (aurrerantzean, “**EDUCA gida**”).
- *Online* testuinguruaren galdetegia elebiduna izanen da beti (gaztelania/euskara edo euskara/gaztelania), baina argi eta garbi nabarmendu beharko da zer hizkuntza aukeratu den erantzuteko. Murriztu egin dira hizkuntza-erabilerei buruzko galdera batzuk.

B. Galde-sorta sozioekonomiko eta kulturala *online* aplikatzeko protokoloa

 Argibide gehiagorako: “**EDUCA gida**”

Hezkuntza Departamentuak ikasleek *online* galde-sortan ematen dituzten datuen isilpekotasuna bermatuko du. Ebaluazio diagnostikoaren txostenean, ikastetxeen datu hauek agertuko dira: indize sozioekonomiko eta kulturala, indize horren arabera gaitasun bakoitzerako balioetsitako puntuazioak, eta baita grafikoak ere, gaitasun bakoitzerako Errendimendua-ISEK erregresio-zuzenarekin eta hartan ikastetxea non dagoen adieraziz.

Galde-sorta hobeki aplikatzeko, ikastetxeek jarraibide hauek beteko dituzte:

1. Lehen Hezkuntzako 4. ikasmaila egiten ari diren ikasle guztiek bete behar dute galde-sorta.

2. Galde-sorta helbide honetan eskuragarri izanen da:

<http://dpto.educacion.navarra.es/eed/>

3. Ikasle bakoitza erabiltzaile izen bat eta ausazko pasahitz bat erabiliz sartuko da galde-sortan.

KASU! Pasahitz hori behin bakarrik erabiltzen ahal da.

4. Galde-sorta elebiduna izan beharko da beti (gaztelania/euskara edo euskara/gaztelania), baina argi eta garbi nabarmendu beharko da zer hizkuntza aukeratu den erantzuteko.

5. Ikastetxeetako zuzendariak **Educa** aplikazio informatikoaren bidez jasoko dute *erabiltzaile izenen* eta *pasahitzen* zerrenda (matrikulaturiko ikasleak bezainbeste izen eta pasahitz).

(Educa → Ikastetxearen ebaluazioa → Ebaluazio diagnostikoa).

Zuzendariak **2020ko urtarrilaren 31tik aurrera** sartzeko ahalko dira bertan.


Aplikazioa egin behar denean, ikastetxeko zuzendariak Lehen Hezkuntzako erabiltzaile izenak eta pasahitzak (ikasleak bezainbeste) emanen dizkie 4. ikasmailako tutore guztiei eta haiek ausaz banatuko dituzte beren ikasleen artean.

6. *Prestatzea*. Aplikazioa egin aurretik, tutoreek, ikasleek eta familiek askatasunez praktikatu ahal dute, aplikazioan sartzeko probako **erabiltzaile izen eta pasahitz hauek erabiliz**:

Probako erabiltzaile-izena: Irati
Probako pasahitza: Irati

Noiznahi eta nornahi sar daiteke *probako erabiltzaile* modura. Horrek aukera ematen die tutoreei, ikasleei eta familiei galde-sorta aztertzeke eta datuak betetzeko baina **aplikazioan gorde gabe**, ez baitira gordeko ezta *Bidali* botoian *klik* eginda ere.

Ikastetxeak berak erabaki dezake nola bete behar den galde-sorta. Nolanahi ere, komenigarritzat jotzen da tutoreak prestakuntzako tutoretza-jarduerak egin ditzan ikasleek galde-sorta eta betetzeko jarraibideak ezagutzeko eta galderei segurtasunez erantzuteko proba bete behar dutenean.



7. *Aplikazio saioa*. Tutoreak antolatuko du saio hau eta ikastetxeko ordenagailuak erabiliko ditu horretarako. Ikasleak aplikazioan sartuko dira, tutoreak ikasle bakoitzari erabiltzaile izen eta pasahitz bana emanen dizkie ausaz, ikasleek aplikazioan sartuko dituzte eta galde-sorta beteko dute.

Erraz betetzen da. Nolanahi ere, alderdi hauek kontuan hartu behar dira:

- Gutxi gorabehera 30 minutu behar dira betetzeko.
- Galdera bakoitzean, ikasleak aukeren artean erantzun bakarra hautatuko du. Ikasleak noiznahi alda dezake erantzuna.
- Galde-sortan atzera eta aurrera egin daiteke.
- Galde-sorta bukatzeko eta erantzunak gordetzeko, *klik* egin behar da ***Bidali*** botoian. Hau egitea nahitaezkoa da erantzunak gordetzeko.
- Ikasleak galderaren bat erantzun gabe utzi badu, ***Bidali*** botoian klik egiten duenean aplikazioak ohartaraziko du, eta ikasleak galde-sorta betetzen segitzeko aukera izanen du edo bukatutzat emanen du ***Horrela bidali*** botoian *klik* ginez.

Hay preguntas sin contestar.
Pulsa el botón ***Enviar como está*** para terminar o completa el formulario y pulsa el botón ***Enviar***

Enviar como está.

- ***Bidali*** botoian *klik* egin eta galde-sorta bukatu ondoren, ezin izanen da berriz sartu galdera-sortan erabilitako erabiltzaile izenarekin eta pasahitzarekin.
8. *Epeak*. Galdera-sorta **2020ko otsailaren 3tik martxoaren 6ra bitartean** bete beharko da. Epetik kanpo sartzen diren galdera-sortak ez dira kontuan hartuko ikastetxeko ISEKa kalkulatzeko. Ez da komeni aplikazioa azken egunetarako uztea, sartzeko arazoren bat konpondu behar bada ere.
9. *Oharrak eta zalantzak*. Zalantza guztiak Ebaluazio Atalean argitzen ahalko dira, bai (evaledu@navarra.es) helbide elektronikoaren bidez, bai 848 42 67 98 / 848 42 71 19 telefonoetara deituz.

Galde-sorta ongi betetzen bada, ikastetxeek datu fidagarriagoak izanen dituzte eta hobeki ezagutuko dituzte beren ikasleen hezkuntzari buruzko alderdi garrantzitsuak.

C. Probak entregatzea eta zaintzea

1. Aurreko ikasturteetako prozedura erabiliko da eta zuzendaritza taldeko edozein kidek edo eskuordetzen den konfiantzazko edozeinek jasotzen ahalko ditu probak (sinadurak kontrolatuko dira jasotzean):
 - a) Lizarra, Lekaroz, Tafalla eta Tuterako ILZei atxikiriko ikastetxeek probak dagokien ILZren egoitzan jasoko dituzte, **2020ko martxoaren 23, 24 eta 25ean..**
 - b) ILZ horiei atxikiriko ikastetxeren batek Iruñean jaso nahi baditu, **posta elektronikoz** jakinarazi beharko dio **Ebaluazio Atalari, 2020ko otsailaren 28a baino lehen** (evaledu@navarra.es).
 - c) Iruñeko ILZri atxikiriko ikastetxeek **Hezkuntza Departamentuko Liburutegian** hartu beharko dituzte probak (beheko solairuan), **2020ko martxoaren 23, 24 eta 25ean**, 08:30etik 14:30era.
2. Ikastetxean, proba horiek zuzen daudela egiaztatu beharko da (koaderno kopurua, hizkuntza, CD kopurua). **2020ko apirilaren 3a, asteartea**, izanen da azken eguna Ebaluazio Atalean zeinahi gorabehera jakinarazteko.
3. Zuzendaritzakoek proba asteko **ordubete edo gutxiago** falta denean emanen dizkiote irakasle aplikatzaileei proba bakoitzerako behar diren koaderno guztiak. Koadernoak paketatuta egon beharko dira, eta proba hasteko unean irekiko dira.

4. Irasle aplikatzaile eta zuzentzaileek erabat isilpean gordeko dute proben edukia, 2020ko maiatzaren 20ra arte. Egun horretatik aitzina probak aske eta irakasleendako eskuragarri geldituko dira.

D. Ebaluazio probak nork eginen dituzten

Oro har, **Lehen Hezkuntzako 4. ikasmaila egiten ari diren ikasle guztiek** eginen dituzte ebaluazio probak eta, hala behar denean, hurrengo atalean azaltzen diren egokitzapak eginen dira.

E. Proben egokitzapena

Hezkuntza laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleak ebaluatzeko, atal honetan ezarritako oharra kontuan hartuko dira, ikasle bakoitzaren ikaskuntzari buruzko banakako informazioa emateko. Egokitzapen neurriak hiru motatakoak izan daitezke: sarbidea erraztekoak, antolakuntzakoak edo curriculumekoak.

Bereziki ohar hauek izanen ditugu kontuan:

1. Educa aplikazioan "**Salbuetsita**" dauden ikasleak:
 - a) **LHko 4.eko ikasle** hauek: curriculumean bi ikasmailako edo gehiagoko atzerapena dutenak edo errekupeazio planak egiten ari direnak **LHko 1.eko edo 2.eko Matematika eta/edo Hizkuntza (Gaztelania edo Euskara, D ereduan) arloei dagozkien ikaskuntzak gainditzeko** (PRE1, PRE2). Ikasle horiek beren gaitasun edo curriculum mailara egokitutako ebaluazio probak egiten ahalko dituzte (proba guztiak edo batzuk bakarrik). Ikastetxea arduratuko da egokitzapen horiek ikasle bakoitzaren neurrikoak izan daitezen.
 - b) Berandu sartu diren ikasleak, ikastetxean urtebete baino gutxiago daramatenak. Ikasle horiek beren gaitasun edo curriculum mailara egokitutako ebaluazio probak egiten ahalko dituzte (proba guztiak edo batzuk bakarrik). Ikastetxea arduratuko da egokitzapen horiek ikasle bakoitzaren neurrikoak izan daitezen.

Halakoetan, ikaslearen txostena eskuz edo Educa aplikazioa baliatuta egin ahal izanen da. Bigarren aukera hori erabili nahi izanez gero, ikaslea "Salbuetsita" gisa markatu beharko da Educa aplikazioan, haren emaitzak ez daitezen kontuan hartu ikastetxearen txostenean.

Ikastetxeek "Salbuetsita" dauden ikasleen Educako erregistroan sartu beharko dituzte ikasle horiek maiatzaren 4tik aitzina, maiatzaren 22a izanik haiek sartzeko azken eguna.

2. Ikasle hauen emaitzak **modu normalizatuan** sartzen dira Educa aplikazioan:

- a) **Sartzeko egokitzapenak** behar dituzten ikasleak: kasurik larrienetan NHBBZek egiten ditu (Nafarroako Hezkuntza Bereziko Baliabideen Zentroa), Hezkuntza Departamentuko Ebaluazio Atalarekin eta ikastetxeko Orientazio Departamentuarekin edo Zuzendaritzarekin batera.
- b) **Hezkuntza premiak dituzten ikasleak:** probak ohiko moduan egiten ditu eta Ikastetxeak (zuzendariak, orientatzaileak, tutoreak, irakasle espezialistak...) aurreikusi eta jarriko ditu behar diren egokitzapenak eta laguntzak, baita egokitutako probak eginen ere. **Sarbideko eta antolakuntzako egokitzapen** horietan honako hauek sar daitezke: proben formatua eta aurkezpena, proben denbora eta probak egiteko tokia, ingurua (argiteria, akustika...), probak egiteko jarraibideak, erantzunaren forma (baliabide teknologiko egokituak eta irisgarriak...), etab. Kasu hauetan, emaitzak Educa aplikazioan sartuko dira modu normalizatuan. Egokitzat jotzen bada denbora gehiago ematea proba egiteko, 20 minutu luzatzea gomendatzen da.
- c) **LHko 4. ikasmailako ikasleak, LHko 3.eko Matematika eta/edo Hizkuntza arloei dagozkien ikaskuntzak gainditzeko errekupeazio planak (EP3) egiten**

ari direnak. Ikasle horiek probak ohiko moduan eginen dituzte eta emaitzak modu normalizatuan sartuko dira Educa aplikazioan.

Ikastetxeek garaiz bete beharko dute **Egokitzapenen Erregistroa** (I. eranskina) eta ikastetxean gorde beharko da (**ez da Ebaluazio eta Kalitate Atalera igorri behar**). Zuzendaritza taldeak eta/edo orientatzaileak, dagokienean, probak aplikatuko dituzten irakasleei xehe-xehe adieraziko diete zer egokitzapen egin behar duten eta, hala behar denean, baita zuzentzaileei ere.

F. Probak betetzea

- Probak ahal dela **bolaluma urdin edo beltzez** beteko dira.
- Probetan **EZ dute kalkulagailurik** erabiliko.
- Zirriborro papera:
 1. Matematikako gaitasun proban ikasleek orri zuriak erabiltzen ahal dituzte eragiketarako, baina oharrak ebaluazio koadernora pasatu beharko dituzte galderak irekiak direnean eta urratsak edo planteamenduak eskatzen direnean.
 2. Era berean, ingeleseko proban ikasleek zirriborro papera erabiltzen ahalko dute probaren lehen zatian oharrak hartzeko (*listening* edo entzumena).
 3. Ikasleek, hala eskatuz gero, zirriborro papera erabiltzen ahalko dute, horretarako utzitako zuriuneaz gain, idatzizko adierazpenari dagozkion probetan, bai gaztelaniazko, bai euskarazko hizkuntza-gaitasunen gainekoetan.
 4. Ez da zirriborroaren papera jasoko.

G. Aplikazio fasea prestatzea

- Zuzendariak Protokolo hau irakasle aplikatzaileen esku utzi beharko dute, aplikatzen hasi baino 72 ordu lehenago, gutxienez. Nolanahi ere, gomendatzen da taldean aztertzea bai protokoloa, bai ebaluazio prozesu osoaren plangintza.
- Ingeles proba egin behar denean bereziki hartu behar da kontuan audio-erreproduzitzailea erabili behar dela eta horretarako berariazko jarraibideak daudela.
- Tutoreek lana prestatuko dute ordua bete aurretik proba bukatzen duten ikasleentzat, lanean jarrai dezaten ikaskideak molestatu gabe.
- Ikastetxeek egokitzat jotzen dituzten informazio eta motibazio neurriak hartuko dituzte, egitekoa onartzeko eta lanerako giro egokia sortzeko.

H. Aplikazioa

1. Ikastaldeari eskola ematen dioten irakasleek aplikatuko dituzte probak, baina ez une horretan ebaluatzen ari den gaitasunarekin zuzenean lotutako irakasleek. Horren ondorioz, ingeles gaitasuneko proba ez du ingeleseko espezialistak aplikatuko.
2. Aurreko hori betetzerik ez dagoenean, ebaluatoriko ikastaldeari eskolarik ematen ez dion irakasle batek aplika dezake proba.
3. Aplikazioan zehar, irakasle aplikatzaileak konpromisoa hartuko du protokolo honetan dauden jarraibideei fideltasunez jarraitzeko eta ez du proben, galderen edo testuen edukiari buruzko argibiderik, ñabardurarik eta interpretaziorik eginen. Aplikatzailearen eginkizuna da errespetuzko eta bakarkako lan giroa bermatzea, eta ikasleei honako hauen antzeko mezuak emanen dizkie: *“irakur ezazu arretaz”, “jarraitu lanean”, “galderaren bat ulertzen ez baduzu, segi hurrengoak egiten eta, gero, saiatu berriro”, “baduzu erreparatzeko denbora”*... Haren lanan behar bezala betetzeko, aplikatzaileak ikasgela eta proba nola garatzen den zaintzen egon behar du, ikasleek arretaz lan egin dezaten eta duten denbora ahalik eta gehien aprobetxa dezaten.
4. Aplikatzaileak ikasleei proba oso garrantzitsua dela jakinaraziko die, Nafarroako ikasle guztiak egiten ari direla eta ahalik eta ongien egiten saiatu behar dutela, tutoreak gurasoei

ekainean emaitza emanen diela eta abar. Sentsibilizazio lan hori oso garrantzitsua da ikasleen inplikazioa eta ahalegina sustatzeko, eta ikastetxean aurreikusitako lan planaren arabera egin daiteke.

5. Aplikatzaileak ikasleei jakinaraziko die ikasgelan egon behar dutela proba bukatu arte, lehenago bukatzen badute, tutoreak proposaturiko lanak egin beharko dituztela, eta ez dutela gainerako ikaskideen lana galarazi behar. Aplikatzailea ikasleek egin beharreko lanaren jakitun izanen da, eta lan hori egiten dela bermatuko du.
6. Aplikatzaileak zerrenda bat izanen du taldeko kide guztiekin, baita salbuetsita dauden ikasleen erregistroa ere. Zerrenda irakurriko du, bertaratu gabeak azpimarratuko ditu eta salbuetsita dagoen ikasleren batek proba egiten badu S letra (salbuetsia) idatziko du koadernoan, proba bukatzean.
7. Bermatuko du ikasleen mahaien artean behar besteko tartea dagoela, lana banakakoa izan dadin. Hori hala dela bermatuko du saio guztian zehar.
8. Dena prest dagoenean, koadernoan paketea ireki eta koadernoak banatu beharko ditu. Azaleko datuak betetzeko esan ondoren, probaren koadernoan dauden jarraibideak irakurriko ditu, eta esanen die galdera irekiak daudela, eta baita itxiak ere, eta azken horietan erantzun bat hautatu behar dutela (A, B, C edo D). Esanen die, orobat, galdera irekietan erantzuna idatzi behar dutela galderaren ondoren dagoen zuriunean.
 - Matematika gaitasuneko probako ariketetan behin eta berriz **azpimarratuko die** problema ebazteko urratsak edo **planteamendua idatzi behar dituztela**, galderaren enuntziatuan hala eskatzen bada.
 - Idazketa ariketan, gaztelaniazko eta euskarazko hizkuntza gaitasuneko probetan:
 - Jarraibideak arretaz irakurri behar dituztela azpimarratuko zaie.
 - Urdinez idatzitako galderak **haiei laguntzeko** direla azalduko zaie, baina ez dela derrigorrezkoa denak betetzea, eta haietan ageri ez diren kontuak asma ditzaketela.
 - Argituko zaie zuriunea duen laukiak gidoi-zirriborro bat idazteko balio duela. Eta ez dela derrigorrezkoa bertan idaztea, eta ez dela kontuan hartuko azken notarako. Hurrengo orrialdeko marradun orrian idatzi beharko da.
9. Ikasleen zalantza orokorrak argituko ditu, eta adieraziko die bakarrik egin beharko dutela lan; zerbait ulertzen ez badute, berriz ere irakurtzeko eskatuko die, edo ondoko galderara pasatzeko. Ikasleek proban zehar noiznahi berrikusten ahalko dituzte aurreko galderak.
10. Behin zalantza guztiak argitu ondoren, arbelean idatziko ditu probaren hasierako eta bukaerako orduak. Probarako esleituriko denbora 60 minutu da. Denbora erreala edo baliagarria da hori. Une horretatik aurrera hasiko dira kontatzen probako 60 minutuak.
11. Behin proba hasita, aplikatzaileak ez du inongo argibiderik edo erantzun berririk emanen, eta probaren edukiarik buruzko galderarik egiten badiote, galdera berriz ere irakurtzeko edo ondoko galderara pasatzeko gomendatuko die.
12. Bukatzeko 10 minutu falta direnean horren berri emanen du. Gaztelaniazko eta euskarazko hizkuntza gaitasuneko probetan, proba bukatzeko 30 minutu falta direnean, denbora hori geratzen zaiela gogoraraziko die ikasleei, eta iradokiko, halaber, idazketa ariketa egiten hasteko.
13. Probaren denbora bukatzean, aplikatzaileak koaderno guztiak bilduko ditu, eta ikastetxeko jarraibideei lotuko zaie bertaratu gabeko ikasleek proba beste une batean egin dezaten eta, ondoren, probak zuzen daitezen.
14. Ebaluazio Atalak probak aplikatzeko moduaren kalitate kontrola egingen du, ikastetxeen ausazko lagin batean. Kontrol hori egiteko, atalak izendaturiko langileak egonen dira probak aplikatzen diren saioan, eta protokolo hau betetzen den egiaztatuko dute. Probak egoki zuzendu diren ere egiaztatzen ahalko da.

I. Proba egunean etorri ez diren ikasleak

Ebaluazio proba hauek Lehen Hezkuntzako 4. kurtsoko ikasle guztiek egin behar dituzte. Probaren egunean ez dauden ikasleek lehenbailehen egin beharko dute proba, ikastetxe bakoitzak finkaturiko berreskurapen planaren arabera.


Posible izanez gero, erantzunak EDUCA aplikazioan sartuko dira eta, hala egiten ez bada, ikastetxeak aukera dauka probak eskuz zuzendu eta ikaslearen txostena idazteko, horretarako erabiliz Hezkuntza Departamentuaren webgunean ikastetxeen eskura jarritako materiala (erantzun zuzenak, ebaketa-puntuak eta asmatze-ehunekoak).

J. Ingeleseko hizkuntza gaitasuneko probaren berariazko jarraibideak

Jarraibide orokorrez gain, honako hauek ere hartuko dira kontuan:

1. Aplikatzaileak **astebete lehenago** egiaztatuko du egoki dabiltzala eta ikasgela osoan ongi entzuten direla ingelesezko hizkuntza gaitasuna neurtzeko probako (entzumena) audio-erreproduzitzailea eta CDa.
2. Aplikatzaileak azalpen guztiak taldearen irakas-hizkuntzan emanen ditu, gaztelaniaz G/A ereduko ikasleei eta euskaraz B/D eredukoei.
3. Koadernoko azalean eskatutako datuak bete ondoren, probak hiru zati dituela azalduko du:
 - a) LISTENING (entzumena): 3 aldiz entzunen da ingelesezko grabaketa bat, eta ondoren. entzundakoaren gaineko galderei erantzunen zaie.
 - b) READING (irakurmena): 2 testu irakurriko dituzte ingelesez, eta irakurritakoarekin loturiko galderei erantzunen diete.
 - c) WRITING (idazmena): testu txiki bat idatziko dute, koadernoaren atal horretako jarraibideei jarraikiz. Adierazi behar zaie zuriune bat dutela hasieran erabilgarri, ideiak antolatzeko; borondatezkoa dela hura betetzea eta ez duela puntuatzen.
4. Ondoren, azalduko zaie LISTENING ariketa (entzumena) honela eginen dela:
 - Ikasleek 2 minutu izanen dituzte koadernoko *listening*eko galderak irakurtzeko, alde zurretik jakin dezaten zer eskatzen zaien.
 - Ondoren, 3 aldiz entzunen dute ingelesezko grabaketa bat.
 - Entzunaldien artean 60 segundoko etenaldiak daude. Tarteko etenaldietan galderak erantzuten has daitezke, eta, hala, ondoko entzunaldiari begira, ulertu ez duten horri errepara diezaioke.
 - Entzunaldietan oharrak hartzen ahalko dituzte, zirriborro-orrian.
 - Entzunaldiak bukatu ondoren, ikasleek dakizkiten galderak osatuko dituzte eta proba egiten segituko dute, norberak bere erritmora.

Ondoko taulan aplikatzaileari esaten zaio zeintzuk diren LISTENING (entzumena) ataleko jarduerak eta denborak:



- Aplikatzaileak galdetuko du ba ote den zalantzarik probari buruz, hiru zatietako bati buruz, egin behar dutenari buruz, etab.; eta zalantza horiek argituko ditu, aurreko urratsak errepikatuz, harik eta ikasle guztiek argi eta garbi izan arte.
- Zalantzak argiturik, arbelean idatziko du hasierako eta bukaerako denbora, kontuan izanik proba egiteko guztira 60 minutu daudela eta denbora une horretan bertan hasiko dela. Esanen die 2 minutuz *listeningeko* galderak irakurri behar dituztela eta, denbora hori pasatu ondoren, audio ekipoa martxan jarriko duela.
- Proba bukatzeko 20 minutu falta direnean, ikasleei denbora hori falta dela gogoraraziko die, eta iradoki, halaber, idazketa ariketari ekiteko (*WRITING*).

K. Probak aplikatzeko egutegia

Proba guztiek **60 minutuko iraupen erreala dute** eta goizeko lehen orduetan eginen dira, honako egutegi honen arabera:

Asteartea maiatzak 5	Asteazkena maiatzak 6	Osteguna maiatzak 7	Ostirala maiatzak 8
Hizkuntza gaitasuna gaztelaniaz (A/G ereduak eta B/D ereduak)	Matematika gaitasuna	Ingeleseko hizkuntza gaitasuna	Hizkuntza gaitasuna euskaraz (B/D ereduak)

L. Proben zuzenketa

- Epeak.** Probak aplikatu ondoren, zuzendu eginen dira. Gomendagarria da aplikazioa egin ondorengo astean zuzentzea probak eta zuzenketa amaitzeko azken eguna maiatzaren 15a, ostirala izatea.
- Hauek izanen dira irakasle zuzentzaileak:

Proba	Irakasle zuzentzailea
Hizkuntza gaitasuna	taldeko tutorea edo ikastetxeko beste irakasle bat
Matematika gaitasuna	
Ingeles gaitasuna	ingeleseko espezialista

3. Proba bakoitzak zuzenketa koaderno bat du, eta bertan zehazten dira galdera irekiak zuzentzeko irizpideak. Koadernoak ikastetxearen eskura egonen dira helbide honetan:

<https://www.educacion.navarra.es/web/dpto/evaluacion-y-calidad/evaluacion/evaluacion-externa/evaluacion-de-navarra/educacion-infantil-y-primaria-curso-2019-2020>

Koadernoak pasahitzaren bidez bidez babestuko dira. Ikastetxeko zuzendariari haren berri emanen zaio probak aplikatu aurreko astean, eta hark irakasle zuzentzaileei jakinaraziko die.

Aplikazio egun bakoitzean, 14:00etatik aitzina, webgunera igoko dira egutegi ofizialaren arabera aplikatu diren probak, irakasleek zuzentzen hasteko modua izan dezaten.

Ikaslearen erantzuna zuzenketa irizpideekin alderatu ondoren, zuzentzaileak ikaslearen koadernoan jarriko du puntuazioa edo behar den kodea (0, 1, 2...).

Galdera itxiak ez dira zuzendu behar. Ikasleen erantzunak Educa aplikazio informatikoan sartuko dira eta automatikoki emanen zaie puntuazioa.

 Argibide gehiagorako:
"EDUCA gida"

M. Datuak sartzea

- Epeak.** Ikasleak **maiatzaren 4tik** aurrera matrikulatzen ahalko dira eta azken eguna **maiatzaren 22a** izanen da, ostirala.
- Irakasleek datuak Educan sartu ahal izateko, ezinbestekoa da ikastetxeko zuzendariak **matrikulatzea** ebaluatzen ahal diren ikasle guztiak. Urrats hori egiten da "Ikastetxearen ebaluazioa" → "Ebaluazio diagnostikoa" → "Ikasleak" menutik. Matrikula automatikoki egiten da zuzendariak formularioa bidaltzen duen lehen aldian ("Bidali" beheko botoian).
- Ikasleen koadernoak zuzendu ondoren, Educa aplikazio informatikoan sartu beharko dira bai galdera itxiei emandako erantzunak (A, B, C, D), galdera irekiei emandako puntuazioak (0, 1, 2...). Bi alderdi azpimarratu behar dira:
 - Galdera itxietan* testu kodea sartu behar da (A, B, C, D,...). Besterik ezean, hauxe agertuko da: NR (no responde), gaztelaniaz, edo EDE (ez du erantzuten), euskaraz. Aukera hori erabili behar da ikasleak ez duenean erantzunik eman, erantzun bat baino gehiago markatu dituzenean edo argi jakiterik ez dagoenean zein erantzun hautatu duen.
 - Galdera irekietan* zenbaki-kodea sartu behar da (0, 1, 2,...). Zenbakizko kodetzeak ez du NR/EDE aukera onartzen. Gomendatzen da erantzunik ez denean 0 adieraztea, bete gabe utzi beharrean.

Hezkuntza Departamentuko webgunean eskuliburu txiki bat dago, Educan datuak sartzeko jarraibideekin (Educa Gida). Era berean, izan daitezkeen zalantzak, Ebaluazio Atalean argitzen ahalko dira, posta elektronikoaren bidez (evaledu@navarra.es) edo telefono hauen bitartez: 848 42 67 98 / 848 42 71 19.

4. Funtsezkoa da ebaluaturiko ikasle guztien datuak zuzen erregistratu direla ziurtatzea, zeren eta datuak sartzeko epea bukatu ondoren ez baita aldaketarik egiten ahalko.

Tutoreak egiazta dezake zer dagoen Educan erregistraturik ikasle bakoitzari buruz. Era berean, zuzendariek bi formatutan ikus dezakete informazio hori (pantaila edo CSV fitxategia), baita egiaztatu ere ikaslerik ote dagoen datu edo erregistro osatugabe edo hutsak dituenik. Datuak falta badira edo akatsak badaude, Educa aplikazioak ikaslearen eta ikastetxearen txostenak sortuko ditu gorabehera hori kontuan harturik.

Dena den, Educa aplikazioak ez du ezarritako epeetatik kanpora aldaketarik edo zuzenketarik egiten uzten. Hori hala izanik ere, ikastetxeak berak **eskuz** zuzendu edo osatu ditzake txosten horiek horretarako baliatuz aipatutako CSV fitxategiak eta Hezkuntza Departamentuaren webgunean eskuragarri dagoen dokumentazioa. Eskulan hau neketsua izan daiteke. Beraz, komeni da datuak sartzean akatsak edo hutsegiteak saihestea eta zuzendariek erregistratutako datuak gainbegiratzea gorago aipatutako CSV fitxategia erabiliz.

5. Egokitzapenak dituzten eta Educan "Salbuetsita" agertzen diren ikasleen datuak ez dira kontuan hartuko ikastetxeko txostenean edo ikastetxeko estatistikaren kalkuluan, haien galderak erregistratuagatik ere.
6. Salbuespenez, salbuetsirik ez dauden ikasleek ezin izan badute egin gaitasunen baten edo guztien probarik, ez dira beteko Educan dagozkien erregistroak.
7. Ikastetxeko zuzendariak finkatu faseak eta epeak betetzen direla begiratuko du. Ebaluazio faseak jarraibideei jarraikiz egiten badira, Ebaluazio Atalak aukera du haien bilakaera gainbegiratzeko eta ikastetxeetako kontsultei hobeki erantzuteko.

N. Ikaslearen eta ikastetxearen txostenak eskuratzea



Argibide gehiagorako:
"EDUCA gida"

1. Ekainaren 4tik aurrera ikastetxeek txostenak eskuratuko dituzte, Educa aplikazio informatikoaren bidez. Txostenak soilik egonen dira eskuragarri ekainaren 30era arte. Hezkuntza Departamentuko webgunean eskuliburu bat dago, txostenak eskuratzeko jarraibideekin (EDUCA gida).

GARRANTZITSUA: gogorazten dizuegu ikasleen eta ikastetxearen txostenak ekainaren 30a baino lehen deskargatu eta gorde behar direla.

2. Ikaslearen txostena.

Honako informazioa du:

- Gaitasun mailen definizio orokorra.
- Zer **maila** lortu den ebaluaturiko gaitasun bakoitzean.
- Zenbat **puntu zuzen** lortu diren proba bakoitzean. Gaitasun mailari buruzko informazioa osatzen du, gaitasun maila bakoitzean puntuazio-tarte zabalak daudelako eta, ebaketa-puntuak zein diren ezagutuz gero, jakin dezakegulako ikaslea mailaren zein zatitan dagoen (behekoa, erdikoa edo goikoa).
- 500 puntuko batezbestekoa eta 100eko desbideratze tipikoa dituen **eskalara ekarritako** puntuazioa, gaitasun bakoitzerako, eta haien irudikapen grafikoa.

Gaitasun bakoitzeroako, zuzenean lortutako puntuazioak 500eko eskalara ekartzen dira, ondoko adierazpen matematikoaren bidez:

$$y = 100 \cdot \frac{(x - \bar{X})}{DT} + 500$$

y da 500eko eskalara ekarritako puntuazioa

x da ikasleak zuzenean lortutako puntuazioa da

\bar{X} da Nafarroako batezbestekoa ebaluatoriko gaitasunean

DT da Nafarroako desbideratze tipikoa ebaluatoriko gaitasunean

Puntuazioak eskala amankomun horretara ekartzeak aukera ematen du ikasleak proba bakoitzean zer errendimendu izan duen konparatzeko eta, orobat, Nafarroako batezbestekoarekin konparatzeko moduko informazioa izateko (Nafarroako batezbestekoa proba guztietan 500 da).

500eko puntuazioak ez du "gainditu" duenik esan nahi. Jakin badakigu puntuazio hori gaitasunaren 3. mailan dagoela (eskuarki, maila horren behealdean).

- Oharretarako gunea, tutore bakoitzak bete dezakeena. Ebaluazio diagnostikoko txosten honen xedea da ikasle bakoitzarendako hobekuntza neurriak hartzen laguntzea eta badu oharrak izeneko tarte bat, egokitzen jotzen den mezua idatzi ahal izateko.

Ikaslearen txostena tresna baliagarria da ekainean familiei emateko, tutoretza lanaren testuinguruan.

Educa aplikazio informatikoak aukera ematen du ikastaldeko txosten guztiak artxibatuzeko eta paperean inprimatzeko, modu erosoan.

3. Ikastetxearen txostena (ikastetxeko ikasleen emaitza orokorrekin egindako txostena).

Ikastetxeetako zuzendariak ikastetxeko ikasleek erdietsitako emaitzen **txosten orokorra** eskuratuko dute Educa aplikazio informatikoaren bidez, Nafarroako batez besteko emaitzekin erkatuta. Txostenak informazio hau du:

- Sarrera, irakurketa eta emaitzen barne azterketa errazteko.
- Ikastetxeko ikasleen emaitzak gaitasun bakoitzean.
- Ikasleen ehunekoa gaitasun maila bakoitzean.
- Maiztasun grafikoak, puntuazio bakoitzeroako.
- Erantzun zuzenen ehunekoa item bakoitzeroako, grafikoarekin.
- Batez besteko puntuazioak ikasgelaz ikasgela.
- Emaitzak alderatzen dituzten grafikoak, gaitasunez gaitasun, eskala amankomun batera ekarritako puntuazioekin.
- Gaitasun bakoitzeroako *Errendimendua-ISEK* erregresio-zuzena duten grafikoak, ikastetxea zein tokitan dagoen adieraziz.

Irakasleen klaustroak ebaluazio diagnostikoko emaitzak aztertu eta baloratu beharko ditu. Datuen gaineko hausnarketa egin ondoren, hobekuntza ildoak proposatu beharko dira eta horren guztiaren berri eman beharko zaio eskola kontseiluari.

Ikastetxeetako zuzendariak urtez urte egiten diren ebaluazioen txostenak gordeko dituzte. formatu elektronikoa.

4. Datuen fitxategia (CSV formatuan)

Ikaslearen eta ikastetxearen txostenez gain, Educa aplikazioak CSV formatuan dagoen fitxategi bat ere badu eta ikastetxeko ikasleen erantzunak daude bertan, taula batean adierazita. Fitxategian informazio hau dago, gaitasunez gaitasun:

- Ikasleen erantzunak. Galdera itxietan, ikaslearen erantzuna agertzen da (A, B, C, D) eta galdera irekietan, zer puntuazio esleitu den (0, 1, 2...). Informazio horri esker, modu zehatzagoan azter ditzakegu ikasleek egin dituzten akatsak eta asmatu dituzten galderak.
- Ikasleek erantzun ez dituzten galderak. Informazio horri esker, azter dezakegu zenbateraino diren gai ikasleak ahalegin eta autonomia handiagoa eskatzen dituzten jarduerari aurre egiteko.
- Lortutako puntuazio zuzena.
- Esleitutako gaitasun maila.

Datuen fitxategiak ikastetxeari laguntzen dio azterketa osagarriak egiten eta Educa aplikazioak sortzen duen txostena osatzen. Esate baterako, CSV fitxategiaren datuekin ondokoa egin daiteke:

- Gaitasun desberdinen puntuazioen arteko korrelazioak kalkulatu.
- Gaitasun desberdinetako gaitasun mailen arteko korrelazioak kalkulatu.
- Grafikoak egin eta ikasleen puntuazioak irudikatu mailaz maila.
- Korrelazioak kalkulatu gaitasun desberdinen puntuazioen eta ikasleek barneko ebaluazioetan lortu dituzten emaitzen artean.
- Ikasleen erantzunak eta emaitzak alderatzea ikasgelaren, sexuaren eta abarren arabera.

CSV fitxategia formatu irekiko dokumentu mota bat da, oso xumea, eta kalkulu-orrien edozein programaren bidez ireki eta maneiatu daiteke.

O. **Ikasleek egindako probak gordetzea**

Zuzendutako **koadernoak** ikastetxean **zaindu** eta **kontserbatu** beharko dira **2020ko azaroaren 30a arte**, eta egun horretatik aitzina suntsitzen ahalko dira. Egun horretara arte, Ebaluazio Atalak koadernoak eskatzeko aukera izanen du, aztertu egin beharko balitz ere ea zuzenketa-irizpideak baliozkoak izan diren eta irizpide horiek zuzen eta modu homogeneoan erabili diren.

P. Eskerrak ematea

Ebaluazio Atalak eskerrak eman nahi dizkie ebaluazio zeregin honetan arituko diren zuzendaritza talde, tutore, irakasle, orientatzaile, zerbitzuetako langile, ikasle eta gurasoei.

Iruñean, 2019ko abenduaren 17an

Sección de Evaluación/Ebaluazio Atala

Departamento de Educación del Gobierno de Navarra/Nafarroako Gobernua Hezkuntza

1. ERANSKINA - EGOKITZAPENEN ERREGISTROA

2019/2020 ikasturteko ebaluazio diagnostiko zentsala

Lehen Hezkuntzako 4.a

EGOKITZAPENEN ERREGISTROA

Ikastetxea:

Jar ezazu "X" soil-soilik ikastetxean ez bada egokitzapenik behar duen ikaslerik

Egokitzapenen erregistroa				
	Ikastaldea	Izen-deiturak	Egin beharreko egokitzapena	Datuak Educan erregistratzea (Bai / Ez)
1.				
2.				
3.				
4.				
5.				
6.				
7.				
8.				
9.				
10.				

* Erregistro hau ikastetxean gorde behar da (ez da Ebaluazio Atalera bidali behar).

2. ERANSKINA - JARDUKETEN EGUTEGIA

2020ko otsaila						
al.	ar.	az.	og.	or.	lr.	lg.
				31	1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	

→ Zuzendariak erabiltzaile-izenak eta pasahitzak eskuratzea. (Educan, urtarrilaren 31tik aurrera)

→ *online* galde-sorta aplikatzea (otsailaren 3tik martxoaren 6ra arte)

2020ko martxoa						
al.	ar.	az.	og.	or.	lr.	lg.
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30	31					

Aplikatu *online* galde-sorta martxoaren 6a baino lehen!
(Gomendatzen da ez uztea lan hori azken egunetarako)

→ Egokitzapenak eta salbuespenak erregistratzea (paperean, ez Educan)

→ Probak jasotzea (martxoaren 23a, 24a eta 25a)

2020ko apirila						
al.	ar.	az.	og.	or.	lr.	lg.
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30			

→ Materiala egiaztatzea: probak eta ingelesezko CDa (apirilaren 3ra arte)

Maiatza 2020						
al.	ar.	az.	og.	or.	lr.	lg.
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	31

GARRANTZITSUA: irakasle aplikatzaileek eta zuzentzaileek erabat isilpean gorde beharko dute proben edukia maiatzaren 22ra arte.

→ Zuzendariak ikasle taldeak matrikulatu beharko dituzte, eta salbuespenak erregistratu Educan (maiatzaren 4tik aurrera)

→ Proben aplikazioa (maiatzaren 5a, 6a, 7a eta 8a) eta zuzenketen hasiera.

→ Datuak Educan erregistratzea (maiatzaren 6tik 22ra)

2020ko ekaina						
al.	ar.	az.	og.	or.	lr.	lg.
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30					

→ Ikasleen eta ikastetxeen txostenak eskuratzea (ekainaren 4tik 30era)

Gorde txostenak (ikasleenak eta ikastetxearenak) ekainaren 30a baino lehenago!